

**EUSKAL AITONEN SEMEEN OHOREA ZALANTZAN:
TRAIZIOA ETA LEIALTASUN EZA BANDOEN GERRETAN**

MIKEL HERNANDEZ AIERTZA

HISTORIAKO GRADUA

Erdi Aroaren, Aro Berriaren eta Amerikaren Historia saila

Tutorea: José Ángel Lema Pueyo

2017 – 2018 ikasturtea

AURKIBIDEA

1. LABURPENA.....	3
2. ITURRI NAGUSIA.....	4
2.1. BIZITZA.....	4
2.2. LANA.....	5
3. BESTE ITURRI OSAGARRIA.....	7
4. <i>STATUS QUAESTIONIS</i>-A.....	7
5. SAILKAPEN KRONOLOGIKOA.....	13
6. TRAZIO ETA LEIALTASU EZAK.....	16
6.1. FIDELTASUN ALDAKETAK.....	17
6.2. LEINUAREN BURUTZAREN INGURUKO TENTSIOAK.....	20
6.3. AHAIDE NAGUSIARI TRAZIOA ETA MENDEKUA.....	21
6.4. OHORERIK GABEKO EKINTZAK.....	22
6.5. KRISTAU ETIKAREN AURKAKO EKINTZAK.....	25
6.6. AURRETIK PENTSATUTAKO TRAZIOAK.....	26
6.7. BAPATEKO BEROALDIA.....	27
6.8. TRAZIO ENTZUTETSUA.....	28
7. ONDORIOAK.....	29
8. BIBLIOGRAFIA.....	30

1. LABURPENA

Ondorengo lanean, XIV eta XV. mendeetan, bereziki Gipuzkoa eta Bizkaian jazo ziren Bandoen Gerrak izango ditugu hizpide. Hala ere, ez da lan honen helburua Bandoen Gerraz, honen jatorrizko arrazoi, garapen eta amaieraz jardutea, jadanik ikerketa mardulak argitaratuak baitaude. Izatez, Bandoen Gerraz hitz egitean itzalpean geratu izan diren gertakarietan egin nahi da azpimarra, gatazka sozial edo gerra pribatu hauetan ematen ziren arau-hauste zein traiziozko hilketetan, leinuaren baitan edo bandoaren baitan ematen ziren traizio eta leialtasun aldaketetan edota oro har, noblearen balizko etikaren baitan zalantzarri izan zitezkeen gertakariak azaleraztea hain zuzen. Honela balizko etika horren malgutasuna agerian geratuko da, bortizkeria oinarri nagusi duena, ohorea eta gerlaria eskutik emanda zihoazen mentalitate batean.

Lehenik eta behin, erabili diren lehen mailako iturriez hitz egiten da. Lanean Koldo Mitxelenaren *Textos arcaicos vascos* ikerketa ere aipatzen den arren, ikerketaren oinarria Lope Garcia Salazar bandokide ezagunak idatziriko *Libro de las buenas andanças e fortunas* izenburua duen kronika da. Hori dela eta egilearen inguruko biografia labur bat eskaintzen da, ondoren kronika horren ezaugarri eta berezitasunez hitz egiteko, baita gaurdaino kronika honetaz egin diren lan eta transkribaketak. Ondoren Bandoen Gerren inguruko historiografiaren errepaso bat egiten da. Honetarako garapen kronologiko bat egiten da, iraganetik gaurdaino, garai bakoitzean izandako ikertzaile nagusiak eta hauek egindako ikerketak azaltzen dira modu laburrean, bakoitzak gai honekiko egindako ekarpenak azpimarratuz.

Lanaren zati nagusia hasi baino lehen, *Buenas andanças e fortunas* lanean aurkitu diren ohorerik gabeko ekintza, traizio eta leialtasun aldaketak bildu dira kronologikoki taula batean. Taulan ageri diren kasu guztiak lanean baliatzen ez ditugun arren, gaian interesa duen edonori baliogarri suertatu ahal zaio gertakari hauek Bandoen Gerren testuinguru kronologikoan kokatzeko. Honela aztertutako kasuei sarrera eman ondoren, leinu eta bandoen baitan eman ziren leialtasun aldaketa zein traizioak dira eztabaidagai, hauek ulertu ahal izateko zenbait azalpen emanaz. Segidan, Salazarrek berak mespretxatzen zituen ekintzak aztertzen dira, tregoa hautsiz egindako hilketak, kide zirenen aurkako hilketak eta gerra pribatuaren arauak errespetatzen ez zituzten bestelako kasuak. Salazarrek gaitzesten ez dituen arren, nobleen diskurtsoarekin kontraesanean sartzen diren ekintzak ere aztertzen dira ondoren, kristau erlijioa zipriztindu eta kaltetzen

zutenak, elizgizonak hiltzea esaterako. Aurretik kasuak agertzen diren arren, atal berezituak eskaini zaizkie hotzean edo aurretik pentsatuta zeuden traizioei, zein momentuko beroaldiaren ondorioz jazotako erailketa eta traizioei. Azkenik historian oihartzuna izan duen traizioa ekarri nahi izanda gogora, 1448ko Arrasateko erreketan Gomez Gonzalez Butroe Ahaide Nagusiaren eta bere semeen heriotza eragin zuena.

2. ITURRI NAGUSIA

Esan bezala, lan honetarako erabilitako iturri nagusia *Libro de las buenas andanças e fortunas que fizo Lope Garcia de Salazar* liburua izan da; beraz, argibide-tresna hori hobeto ulertzearen, ondorengo lerroetan lanari eta egileari buruz hitz egingo da.

2.1 BIZITZA

Lope Garcia Salazar bizkaitar bandokide garrantzitsu izateaz gain (1399-1476), Bizkaiko lehen historialari izateagatik ezaguna da egun. XV. mendean gori-gorian zeuden bandoen gerretako protagonistetako bat izan zen eta bere eskutik iritsi zaigu garai haietako gertakarien berri, Muñatonesko dorrean bere semeek preso zutela aipatutako liburuan. Bertan munduaren sorreratik, bere garai arteko, hau da Espainiako Behe Erdi Arora arteko historiaren berri ematen digu leinu-buruak, zeinetan gertakari historikoez gain, legenda eta ahozko tradiziozko istorio ugari nahasten dira.

Lope Garcia Salazarren bizitza Enkarterrietara lotua egon zen, 1399an Muskizeko Muñatonesko dorretxean jaio zenetik. 1425ean bandokide zen Joana Butroe eta Muxikarekin ezkondu zen, zeinarekin 6 seme eta 3 alaba izan zituen. Hauetaz gain, lanean azaltzen duen bezala, ezkontzatik kanpo seme-alaba ugari izan zituen. Enkarterrietako noble eta Ahaide Nagusi boteretsuenetakoa zen, bere esanetara zeuden ezkutari eta leinu-kideen bidez, inguruko burdin mehearen eta merkataritza bideen kontrola zuen. Salazar, Somorrostroko San Martin, Muñatones, Nograro eta de La Sierrako dorretxeetako jauna zen. Honetaz gain, Castro hiriko merio nagusia eta Portugaleteko probestuaren karguak eskuratu zituen.

Oso gizon handia zen, bi metroak gaintzen zituelarik. Bere tamaina baliagarri izan zitzaion gaztetatik, bereziki aurkari ziren Velasco kondearen eta Marrokindarren aurkako borrokaldietan. Bizitza guztia, heriotzara arte, Bandoen Gerretako borrokaldietan murgilduta pasa zuen. Lehenbizikoz 16 urterekin hartu zuen parte erasoaldi batean eta 18 urterekin hil zuen lehenbiziko gizona. 1451ean Joan II.ak

agindutakoaren aurka jo zuen, Bizkaiko korrejidore gisa Joan Hurtado Mendoza izendatu zuenean. Bestetik, 1457an Enrique IV.ak Gipuzkoa eta Bizkaiko beste Ahaide Nagusiekin batera Granadako mugara erbesteratua izan zen Ermandadeekin zituzten arazoak zirela medio. 1462an maiorazkoaren oinordekoa zen semea hil zen Torrellasko guduan, gutxira 1468an Elorrioko guduan beste lau seme galdu zituelarik. Ondorioz, bere seme zen Joanek, zeinarekin erlazioa gatazkatsua zen, maiorazkoaren oinordekotza erreklamatu zuen, Lopek ukatuko ziona. Hainbat gorabeheren ondoren, leinuaren lidergoa galdu zuen, bere seme Joanen alde. Bere bizitzako azken urteak (1471-1476), San Martineko Muñatones dorretxean igaro zituen preso bere semeek hala aginduta. Bertako gatibualdian idatzi zuen lan historiko entzutesua. Hainbat ihesaldi saiakeraren ostean, 1476an hil zen pozoindurik, diotenez¹.

2.2 LANA

Libro de las buenas andanças e fortunas que fizo Lope García de Salazar obraren transmisioa XV. mendean idatzirikoa egun arte iritsi da. Nahizta 46 eskuizkribu dauden, horietatik hiruk soilik agertzen dituzte egileak idatziriko 25 liburuak. Gainontzekoek lanaren zati batzuk bakarrik dituzte, ohikoenak Bizkaiko Jaurerriaren sorrera, leinuen jatorria eta Bandoen Gerra narratzen dituzten pasarteak dira. Israel, Grezia eta Erromako historia barnebiltzen du, baita Espainiakoa eta bertako erregeena ere. XX. alean Bizkaiko historian murgiltzen da, azken bost aleak Galiziatik Lapurdi bitartean Bandoen Gerrekin erlazonaturiko gertaerak azalduz.

Urte luzeetan arreta gutxi jaso ostean, azken hamarkadetan *Buenas andanças e fortunas* obrari buruzko interesa handitu da. Lanaren lehen edizio osoa Ángel Rodríguez Herrero 1967an burutu zuena izan zen, baina “carece de una metodología rigurosa y contiene numerosos errores de transcripción”². Hala ere, bere lanaren erabilera zabaldua egon izan da ikerlarien artean, gehien kontsultatutako argitalpena izanik. Ondorioz, iturri hau erabili duten ikerlarien lanak berrikustea komeniko litzateke, Rodríguez Herrero egindako transkripzio akatsek lan horietan isla baititzazkete.

Aurretik argitalpen partzialak plazaratu ziren. 1884an Maximiliano Camarónek azken sei liburuen edizioa egin zuen, Rodríguez Herrero ere 1955an prestatu zuena. Pasarte

¹ VILLACORTA, M^a C.: *Libro de las buenas andanças e fortunas que fizo Lope García de Salazar*. Bilbo, EHU/UPV, 2015, XXXIII-XXXIV.

² Ibid., XXXI.

laburragoak ere argitaratuak izan dira hainbat autoreren eskutik Gabriel de Henao, Rafael Floranes, Ramón Menéndez Pidal eta Marcelino Menéndez Pelayo esaterako. Azpimarratzekoa da, Harvey L. Sharrer irakasleak 1979an argitaraturiko lanerako Salazarren idatziak oinarri hartu zituela, bereziki hamaikagarren liburua, Britainiaren historia legendarioa kontatzen duena. Azkenik, 1992an Ana M. Marín Sánchez argitaraturiko obraren transkribaketa osoa dugu. Baina bandokidearen lanaren ikerketa osoa Maria Consuelo Villacorta Macho historialariak eginikoa da. Alde batetik, 2005ean argitaraturiko *Edición crítica del Libro de las buenas andanças e fortunas que fizo Lope Garçia de Salazar*, zeinetan XIII, XVIII, XX, XXI, XXIV eta XXV pasarteak landu zituen bestetik 2015ean doktorego tesi gisa aurkezturiko hogeita bost liburuen ikerketa mardula³.

Egin diren ikerketei esker, jakin badakigu salazartarrak zer iturritara jo zuen bere obra gauzatzeko, kasu batzuetan zenbait pasarte hitzez hitz kopiatuak daudelarik. Tartean badira, kronika historikoak, kontakizun literarioak edo ahozko tradiziozko kantu eta olerkiak. Kronikei dagokionez, Pedro Lopez Ayala kantzulariak idatzirik, *Crónica de Rey Don Pedro*, Pedro Corralen *Crónica Sarracina* edo *Crónica del Rey Don Rodrigo* edota *Crónica de 1344* eta *Livro de Linhagens* don Pedro Barcelos kondearen lanak erabili zituen, besteak beste. Kondaira eta kontakizun literarioak ere baliatzen ditu, bereizketarik egin gabe iraganaz hitz egiterakoan. Tartean, Jaun Zuriaren eta Arrigorriagako guduaren kondairak. Baita XV. mendean nobleen artean zabaldurik zeuden *Ciclo Clásico*, *Ciclo Artúrico*, *Ciclo Carolingio* gisako ataletan banatzen diren kontakizun epikoak ere. Gaztelar epikari dagokionez: *Los siete infantes de Lara*, *Condesa Traidora*, *Cantar de Sancho II* eta *Gesta de las Mocedades de Rodrigo* identifikatu dituzte ikerlariak⁴.

Lope Garcia Salazarrek berak entzundakoa, irakurritakoa eta berak bizitakoa kontatzen digu kronikan. Kontuan izan behar dugu, jakina, askotan bilatu izan dela historian gizarte-ordenaren legitimazioa eta era honetan ulertu behar dugu, Salazarren kontakizuna, historiaren bere ikuskera partzial gisa alegia. Villacortaren arabera,

³ Ibid., XXXI.

⁴ VILLACORTA, M^a C.: “La conciencia histórica de Lope García de Salazar [partidismo político y justificación personal en el Libro de las buenas andanças e fortunas]”, DÍAZ de DURANA, J. R. eta REGUERA, I. (ed.): *Lope Garcia de Salazar [banderizo y cronista]*. Portugalete, Gráficas Berriz, 2002, 181 – 198. orr.

liburuak kapereen pribilegioen aldeko diskurtso bat mantentzen du, indarra hartzen ari zen ordena sozial berriaren aurrean.

3. BESTE ITURRI OSAGARRIA

Ez dago soberan aipatzea Koldo Mitxelenaren *Textos arcaicos vascos* lana ere gure helburuetarako lagungarri izan dela. Koldo Mitxelena XX. mendeko euskal hizkuntzalari eta idazlea garrantzitsua izan zen. EHU-ko euskal filologiako iraskasle, Euskaltzaindiako kide eta Euskara Batuaren bultzatzailetako bat izan zelarik. Egile horren *Textos arcaicos vascos* lanean euskarazko aipamen idatziak dituzten testuak bildu zituen, Antzinaroko inskripzio eta epigrafeetatik hasita 1700 urtera bitarteko esaldi solteak, idatziak, prosa zein bertsoak, baita Erdi Aroan ohiko ziren kantuen transkripzioak ere. Azken hauetan, egin behar dugu azpimarra, Bandoen Gerrekin erlazionatutako gertaeren kontakizunak ere baitaude, Arrasateko erreketan gertaturiko traizio baten inguruko kantua adibide garbia dugu⁵.

4. STATUS QUAESTIONIS-A

Bandoen Gerra, tradizionalki, XIV-XV. mendeetan Euskal Herrian eman ziren aitonen arteko gatazka gisa ulertu izan da. Egun, jakina da gatazka horiek ez zirela euskal nobleziaren berezitasun bat izan, baizik eta Europako gainontzeko lurraldeetan ere antzeko egoerak bizi izan zirela. Europar historiografiak gatazka hauek Behe Erdi Aroko krisiaren ondorio gisa ulertzen ditu, gatazken garapenak tokian tokiko berezitasunak izan ahal dituelarik.

Azken mende erdian aurrerapen handiak egin dira Bandoen Gerren ulerpenean. Hau hainbat ikertzailek, ikuspuntu eta metodologia ezberdinetara joz egindako lan eta emankor bati esker izanda, bakoitzak bere ekarpena egin duelarik fenomenoaren Euskal Herriko Behe Erdi Aroko gizartean kokatzeko, premisa orokor batzuetatik abiatuta ikerketa zehatz eta konkretuak eginez. Beraiek egindako lanagatik ez balitz, ez litzateke posible izango lan hau aurrera eramatea, horregatik ondorengo lerroetan Bandoen Gerraren historiografia ekarriko da gogora, ikerlari garrantzitsu bakoitzak egindako ekarpena nabarmenduz.

⁵ MICHELENA, L.: *Textos arcaicos vascos*. Donostia, EHU-UPV, 1990

Lehenik eta berriz ere, Lope Garcia Salazar ekarri behar dugu gogora. Ondorengo mendeetan, Esteban Garibai, Andres Poza, zein bestelako euskal historiaren erudituen lanetan, Bandoen Gerrez jardutean kronikan azaldutakoa birproduzitzen zen, hausnarketarako tarterik eskaini gabe. Hala ere, atal honetan, XX. mendeko historiografiara mugatuko gara.

XIX. mendean E. J. de Labayru Goicoechea, ordu arteko korrontetik bereizi zen eta Bandoen Gerren atzean Salazarrek hainbeste aipatzen zuen “más valer” zegoela adierazi zuen. Hala, 1900ean argitaratutako *Historia General del Señorío de Vizcaya* lanean, Jaurerrian gertatzen diren gertakariak deskribatzen ditu xehetasun osoz. Horretarako leinu nagusien antolaketa eta hauen arteko gatazkak ikertuz⁶. 30ko hamarkadan I. Gurruchagak egindako ekarpena ere azpimarratzekoa da, gatazkaren arrazoien artean faktore juridikoa txertatuz: “en el fondo de estas contradicciones se ha de ver una lucha de dos regímenes, de dos Derechos: el señorial y el concejil o de las villas”⁷.

J. L. Banus Aguirrek (1914-1991) oñaztar eta ganboatarren arteko gatazkaren jatorria erromatarren aurreko garaira eraman zuen. Honen arabera, karistiar eta barduliarrak egungo Gipuzkoako zonaldean ezarri zirenean, bi eredu ekonomikoren arteko talka eman zen, lehenak nekazariak eta bigarrenak abeltzainak izango zirelarik⁸. Antzeko bidetik jo zuen Alfonso Otazuk 1973an *El “igualitarismo” vasco: mito y realidad* lanean, gatazkaren muina ulertzeko talde desberdinek garatutako eredu ekonomikoetara jo behar zela. Hala, lurraldearen barnealdeko herritarrak nekazaritza eta abeltzaintzatik bizi ziren bitartean (oñaztar gisa izendatzen ditu), kostaldean itsasgizon eta merkatariak nagusituko zirela diosku (ganboatarrak)⁹. Ideia horiek egun baztertuak dauden arren, bada ideia argi bat, Bandoen Gerrek jaunen eta nekazarien arteko gatazkak ezkutatzen zituztela alegia. Garai bertsuan, 1975ean zehazki “Los banderizos del Bidasoa (1350-1582)” lana argitaratu zuen *Real Academia de la Historia*ko boletinean.

⁶ DIAZ DE DURANA, J. R.: “Historia y presente del tratamiento historiográfico sobre la Lucha de Bandos en el País Vasco. Balance y perspectivas al inicio de un nueva investigación”, *La lucha de bandos en el país vasco [de los parientes mayores a la hidalguía universal Guipúzcoa, de los bandos a la Provincia (siglos XIV a XVI)]*. Bilbo, EHU, 1998, 26 or.

⁷ GURRUCHAGA, I.: “Notas sobre los Parientes Mayores. Treguas y composiciones de la casa de Loyola. Documentos”, *RIEV*, 26. zbk., 1935, 483 or.

⁸ DIAZ DE DURANA, J. R., op. cit., 33 or.

⁹ DIAZ DE DURANA, J. R.: “Violencia, disintimiento y conflicto en la sociedad vasca durante la Baja Edad Media. La lucha de bandos [Estado de la cuestión de un problema historiográfico]”, *Violencia y conflictividad en la sociedad de la España bajomedieval*. Zaragoza, Universidad de Zaragoza (1995) 33. or.

Hamarkada pare bat lehenago, funtsezko ikerketa batzuk argitaratu ziren, historiografia tradizionalan aldaketa nabarmena izan zirenak. Lehena Ignacio Arocena izan zen, zeinak 1955an “Un caso excepcional en el panorama social de Guipúzcoa: el señorío de Murguía” ikerketa artikulua argitaratu zuen. Hasitako bideari jarraiki, lau urte beranduago *Oñacinos y Gamboínos. Introducción al estudio de la guerra de Bandos* lana plazaratu zuen. Garai berean eta hari beretik tiraka Julio Caro Barojak *Linajes y Bandos* lana aurkeztuz zuen (1956). Bertan leinu eta bandoen erakuntzan eragiten zuten mekanismoak aztertzen ditu, baita ganboatarren eta oñaztarren arteko gatazken arazoak, non “*más valer*” horren garrantzia nabarmenduko duen:

"En una sociedad como la existente en las Provincias vascongadas durante la Edad Media, en la que la solidaridad agnática estaba muy desarrollada y en la que el orgullo de linaje, de familia, era inmenso, se explica que el choque, la discusión, la riña de dos hombres de linajes distintos pero igualmente orgullosos, pudiera traer, como de hecho traía, la formación de grupos de parientes solidarios, hostiles entre sí. Es decir, los bandos por antonomasia¹⁰".

70eko hamarkadarako behin betiko gainditu zen Bandoen Gerren kontakizun kronistiko tradizionala eta gatazkaren analisi konplexuago bat egiteari ekin zioten, Behe Erdi Aroko krisi testuinguruaren baitan kokatuz eta beste gatazka batzuekin erlazionatuz. Garai honetan argitaratutako ikerketak Euskal Erdi Aroari buruzko ezagutzan aberasgarri izan ziren eta europar ikerketa korronteekin bat egiten zuen. Korronte honetan kokatu behar da 1966an José Angel García de Cortazarrek aurkezturiko doktorego tesia, *Vizcaya en el siglo XV. Aspectos económicos y sociales*, non lehenengoz Bizkaiko bandoak izan ziren hizpide.

Baina bada, garai honetan nabarmentzeko gertakari bat, Euskal Herriko Behe Erdi Aroaren eta Bandoen Gerren ikerketan inflexio-puntu bat izan zena: 1973an Bilbon burututako Bizkaiko Jaurerriaren historiari buruzko II Simposioa. Parte hartu zuten artean bi ikerlari nabarmenduko ditugu: Emiliano Fernandez de Pinedo eta José Ángel García de Cortazar. Lehenak "¿Lucha de bandos o conflicto social?" lana aurkeztu zuen; bigarrenak, "El fortalecimiento de la burguesía como grupo social dirigente de la sociedad vascongada a lo largo de los siglos XIV y XV". Sinposio berean J. A. García de Cortazarrek ere lan bat aurkeztu zuen “. Bi kasu hauetan, Europan ematen ari ziren abiapuntu teoriko eta metodologikoekin bat eginaz, tendentzia historiografiko berrietara

¹⁰ CARO BAROJA, J.: *Vasconiana*, Madrid, ediciones Minotauro, 1957 in ibid., 34 or.

egokituz. Hauek beraz, garai hartako testuingurura joko dute gatazkaren zergatiak azaltzerako orduan Birkonkistaren geldialdira eta txaponaren debaluaziora esaterako.

Azalpen-lerro berriaren arabera, beraz, XIV. mendeko krisi ekonomikoaren baitan, errenten jaitsierarekin, euskal agintari taldeak bere posizioa arriskuan ikusi zuten. Garai honetan, hasiko zen leinuen eta bandoen antolakuntzak zentzu eta indarra hartzen, zonalde konkretu batean ematen ziren interes talkak zabalduz joan ziren probintzien maila gainditzearaino. Baina, hala eta guztiz ere lan honetan ikusiko dugun bezala, leinu eta bando hauek, elkarren aurka aritzeaz gain beren baitan lehiatzeko ere gai dira, izan errenta, patronatu edo ondorengotza arazoak direla medio.

Era honetan, gatazkaren muinean arrazoi ekonomikoak zeudela argitu ziguten Cortazar eta Pinedok. Cortazarrek horretan sakonduz, Bandoen Gerra deitu izan denaren baitan ezkututzen ziren gatazka maila desberdinak sailkatzeari ekin zion, hiru gatazka maila desberdinduz: lehena, nekazal nobleziak euren landako nekazariekin izandakoak lirateke, non jaunek errenten jaitsierak lausotu nahian, nekazarietako presioa handitu zuten, errenten eta bortxaren erabilera areagotuz; bigarrena, noblezia honek hiribilduetan sortzen eta garatzen ari diren errealitate sozioekonomiko berriekin dituen aurkakotasunak; hirugarrena, landako jaunak euren artean borrokatzen direnean. Hala eta guztiz ere, gatazka hauen sailkapena konplexuagoa litzateke:

"Encontramos otras hostilidades -linajes urbanos frente a campesinos, villas frente a sus respectivas tierras, linajes urbanos dentro de las villas, frente a otros de villas vecinas o contra linajes del mundo rural, linajes urbanos frente al común, hermandades contra banderizos en el mundo rural y en las villas"¹¹.

Díaz de Duranak, gertakari horien analisi historikoa egiteko, beharrezko ikusten du aitonen semeen arteko gatazkaren baitan ulertu izan diren gatazken analisia, klase sozial desberdinen artean ematen ziren gatazka maila desberdinak ikertuz.

80ko hamarkadan, aurreko urteetan garatutako ideiak oinarri hartu ziren, egindako lanak berrikusiz eta zenbait gaietan sakonduz. 1986an *Álava en la Baja Edad Media. Crisis, recuperación y transformaciones socioeconómicas (c. 1250-1525)* doktorego tesia aurkeztu zuen José Ramón Díaz de Duranak. Tesi honetan Arabako lurraldean zentratu, gizarte gatazka hauek feudalismoaren krisiaren baitan ulertzen dira. Ekarpen nagusiak honako hauek izan ziren: batetik, jaun eta nekazarien arteko zein jaun eta hiribilduetako

¹¹ DIAZ DE DURANA, J.R., op. cit. 33. or.

bizilagunen arteko gatazkak zehaztea izan zen XIV. mendeko lurraldearen jaurgotze prozesuaren ondoren; bestetik Ayala eta Calleja bandoen garapena Gasteiz hirian bandoen desegitea eragingo duen 1476ko udal erreformaren analisisa garatzea.

90eko hamarkadan hainbat lan garrantzitsu plazaratu ziren. José Ángel Achón Insaustiren doktorego tesia horietako bat da, *A voz de concejo*, non, Arrasate eta bere inguruan, gatazkaren eta bere protagonisten garapena aztertu zuen. Baita Artazubiagako Bañez leinuaren joko politikoa, hauen eragina kontzejuan zein Gipuzkoan. Honela, Achonek iraganeko politika izan zuen aztergai: agintari taldeen identifikazioa soziala; beren agintaritzak gauzatzen duten lurraldearen identifikazioa; eta hauen agintaritzaren pentsamendu edo kultura, pentsamendu juridiko konkretu baten bitartez gizarteratuko dena. Klabe politiko horietan "más valer" horrek zuen garrantzia azpimarratu zuen ere. José Antonio Marín Paredes-ek *Semejante Pariete Mayor* doktoretza tesian Oñaz eta Loiolako jaunak ahaide nagusi bilakatzeko faktoreak aztertu zituen, beste ahaide nagusi batzuen ikerketa egiteko oinarriak ezarriz. Gainera, "analiza la transición entre las viejas y nuevas formas de control de las tierras, de los hombres y de las rentas"¹².

1997an Gasteizen beste sinposio bat burutu zen, hainbat ponentzia interesgarri mahaigaineratuz. Díaz de Duranak, jaunen hierarkiaren oinarriaz eta Gipuzkoako landan ematen ziren erlazio sozialen inguruko hausnarketak mahai gaineratu zituen berriz, baina tesia indartzeko balio izan zuen datu askorekin. Marinen kasuan Gipuzkoaren antolaketa politikoaz jardun zuen. Marinen tesian orube, leinu eta Ahaide Nagusien analisiak izan zituen oinarri, Probintziaren botere antolaketan hauek zuten paperaz hausnartzeko. Hala Marinen ideietatik XIV-XV. mendeko Gipuzkoako gizartea, gainontzeko Gaztelako lurraldeetako desberdina zela pentsa dezakegu. Kontrara, Ernesto García Fernándezek, Gipuzkoako zein Gaztelako hirietako antolaketa politikoan ematen ziren antzekotasunak nabarmendu zituen leinuen gatazkak kontrolatzeko orduan. Baita leinu hauek hirietako kontzejuetan lortutako boterea ere, zeinentzat "la riqueza y el prestigio social habrían sustituido la fuerza de los bandos como instrumentos que facilitaban el acceso a los cargos concejiles"¹³.

Bandoen Gerren inguruan azken ekarpen garrantzitsua Arsenio F. Dacosta Martínezen doktoretza tesia izan da: *Los linajes de Vizcaya en la Baja Edad Media: poder,*

¹² Ibid., 37.or.

¹³ DIAZ DE DURANA, J.R., op. cit. 18.or.

parentesco y conflicto”¹⁴. Bere hausnarketek bizkaitar aitoren semeen boterearen oinarri ideologikoak ulertzen laguntzen dute, leinuen errenta iturria, harremantzeko modua, “la composición de los linajes y bandos como es la formación de clientelas y de redes de alianza y parentesco”¹⁵. Bestetik aitonen semeen bortizkeria azaltzen ahalegindu zen, horren jatorrizko izatea eta testuingurua uztartuz. Gainera Cortazarrek egin zuen gisara, leinuen arteko gatazkak maila desberdinetan sailkatu zituen, baina Bizkaiko Jaurerria oinarri izanik: lokala, eskualdekoa eta lurraldekoa. Gatazka mota hauen arteko eta Jaurerritik kanpo ematen ziren gatazken lotura egin zuen, gatazka hauek gaztelar zein europar nobleen gatazken baitan ulertuz. Berak egindako gogoetak, "más valer", funtsezkoak izan dira lan hau burutu ahal izateko.

Azkenik, ezin aipatu gabe utzi EHUren baitan egin diren ikerketa proiektuak, Erdi Aroko saileko ikerlari taldearen elkarlanari esker burutuak. Horren adibide dugu 2000 urtean argitaratu zen Jon Andoni Fernández de Larrearen *Los Señores de la guerra y de la tierra: Nuevos textos para el estudio de los parientes mayores guipuzcoanos (1265-1548)*, non euskal aitonen semeek bortizkeriarekin zuten erlazio estua ikertzen den, bai bidelapur gisa, erregeen zerbitzura, zein leinuen artean. Hauen nagusitasuna lurrarekiko eta bertan bizi zirenekiko bortizkeria horren erabileran oinarritzen zen eta honekin erlazonatuta garatu zuten sareetan. Honetaz gain *El triunfo de las elites urbanas guipuzcoanas: Nuevos textos para el estudio del gobierno de las villas y de la provincia (1412-1539)* eta *En tiempo de ruidos e bandos. Nuevos textos para el estudio de los linajes vizcainos: Los Barroeta de la merindad de Marquina (1355-1547)* 2002an eta 2014an argitaratuak, hurrenez hurren.

Aurreko historiografiaren emaitzak kontuan izanik, lan honek Bandoen Gerretako ikerketan hutsune bat bete nahi du. Hala nola, bandokideen biolentzia ez zela etsaitzat zituzten giza taldeetara mugatzen, baizik eta biolentzia bando zein leinu propiora ere bideratzen zela, traizio eta leialtasun ezak ohikoak zirelarik, modu eta arrazoi desberdinak tarteko. Horretaz gain, nabarmentzea maiz gatazka sozial hauek bideratu nahian garatu zen araudia ez zela errespetatzen bidegabekeria asko burutzen zirelarik. Honek, bandonkidearen etikari pare bat hausnarketa egitera bultzatzen gaitu, alde batetik Dacostaren ikerketa oinarri hartuz eta bestetik Salazarrek egindako

¹⁴ DACOSTA MARTINEZ, A.: *Los linajes Bizkaia en la Baja Edad Media [Poder, parentesco y conflicto]*. Bilbo, EHU-UPV, 2004.

¹⁵ DIAZ DE DURANA, J.R., op. cit. 39.or.

adierazpenetan oinarrituz zer nola ikusten ziren halako ekintzak garaiko euskal bandokideen begietan.

5. SAILKAPEN KRONOLOGIKOA

Ondorengo koadroan, *Libro de la buenas andanças e fortunas que fizo Lope García de Salazar* liburuan topatu ditudan hainbat gertakari zerrendatu dira kronologikoki. Kasu hauetan zalantzan geratzen da aitoren semeen “ohorea”, aurrerago azalduko den bezala, maiz Salazar berak gaitzesten dituenak zenbait kalifikatzaileen bitartez. Kasu anitzak topa daitezke, tregoa hautsiz egiten diren erailketetatik hasiz, senideen arteko erailketara arte. Hala datarekin batera, protagonistak lekua eta gertakariak azaltzen dira modu oso eskematiko batean, gerora osotasunean landuko direlarik. Zerrenda hau egiterako orduan, arazo bat izan dugu. Izan ere, egileak ez du orden kronologiko bat mantentzen gertakariak azaltzeko, hau izatez ez da arazo larria nahizta lan karga handitu. Baina badira zenbait kasu zeinetan ez dituen gertakarien datak zehazten eta “en este mes”, “en este año mesmo”, “en estos días” “en esta sazon” edota “pasado esto”, gisako adierak erabiltzen ditu. Lehen hiruek, ez dute arazorik suposatzen izan ere, Salazarren memoriaz fidatuz gero, aurreko kronikaren datara jo besterik ez genuke. Arazoa azkeneko beste bi esapideekin sortzen da, esan bezala autoreak ez baitio lerro kronologiko bati jarraitzen, jauzi kronologikoak ohikoak direlarik. Kasu horietan, aurreko aipuaren data erabili dut, baina egiari zor ez dago ziurtasunik zuzenak direla esateko. Azken kasu hauen datak parentesien artean agertzen dira taulan, aurrekoena letra lodiz nabarmendurik daudelarik.

Kronologiari erreparatuz gero, garai konkretu batzuetan pilatzen dira aztergai ditugun gertakizunak: 1410eko hamarkadan, 1420 urtean bereziki, eta 1440ko hamarkadan, 1448ko urtea nabarmentzen delarik. Kronologia hau bat dator Jon Andoni Fernández de Larreak Gipuzkoako Bandoen Gerraz egindako sailkapenarekin:

"A lo largo de la primera mitad del siglo podemos identificar dos momentos álgidos: el primero se extendería entre 1410 y 1426, con dos fases críticas de 1410 a 1415 y

de 1420 a 1426; el segundo correspondería al período situado entre los años 1443 y 1448¹⁶."

Esan beharra dago, 1450eko hamarkadatik aurrera ere hainbat kasu topatu ditugula. Honek izatez ez du, Fernandez de Larreak eginiko sailkapena zalantzan jartzen arrazoi simple bat egon baitago honen atzean. Aztertutako kasuei erreparatuz gero, ohartuko gara gehienak Bizkaian ematen direla, eta 1450etik aurrerakoak Bizkaiko mendebaldean eta Arabako ipar mendebaldean. Lope Garcia Salazar Enkarterrietakoa zen heinean logikoa litzateke pentsatzea inguruan gertatzen zena askoz gehiago ezagutzea, Gipuzkoan gertatzen zena baino. Honenbestez, bere obran Bizkaiko kasu Bandoen Gerretako kasu gehiago eta kronologia luzeagoan agertzen zaizkigun arren, horrek ez luke adieraziko Bizkaian gatazka hauek bortitzagoak izan zirenik, hauen ezagutza sakonagoa baizik.

KOADRO KRONOLOGIKOA

	Data	Laburpena	Orrialdea
1	1330	Ibargoen leinuko ezkutariak Joan Ruiz Zaldibar eta honen 15 gizon erail zituzten, Ibargoengo dorrean jatera gonbidatu ondoren.	794
2	1338	Joan Abendañok, bere lehengusu zen Pero Ortiz Abendaño hil zuen Urgutin.	798
3	1340	Sancho Ortiz Marrokin Montermoso eta Otxoa Lopez Gordexolaren artean gatazkak egon ziren, lehengusu eta bizilagunak izanik ere.	844
4	1350	Perea Ayalaren aldekoek Diego Ferrandez Ospina Ugarte erail zuten, Larrimbeko elizan.	841
5	(1350)	Mendibil leinukoek Pero Ospina erail zuten mezatan.	841
6	1395	Adan Yartza <i>el Viejo</i> eta Adan, bere semeak, Pero Ortiz Arantzabia, Arteagako jauna, erail zuten.	795
7	1410	Diego Okilak, Ferrando Lezamaren ilobak, Ferrando Lezama, bere seme Iñigo Lezama, haren iloba Rodrigo Basazabal eta hainbat gizonen aurkako segadan parte hartu zuen.	798
8	1414	Joan Abendañok Gonzalo Gomez Butroekin adostutako tregoak apurtu eta Mungiako hiribildu parean borrokatu zuten.	800-801
9	1415	Diego Gonzalez Quincosesek, angulotarra izatez, Joan Luze Lorengo, salazartarra, erail zuen bere etxetik gertu.	832
10	1417	Bi leinu hauen artean tregoa zegoelarik, Perutxote Marrokin Otañesek bizkarretik gezi batez larriki zaurituta utzi zuen Sancho Otañes, etxeko eskaileretan zela.	869
11	(1418)	1418an Sancho Lovo eta Joan Lovok Martin "Amescorca" erail zuten Ayegan.	848
12	1420	Diego Gomezek eta Menillo Gordexolak, lehenengoaren koinata zen Martin Angulo erail zuten.	832

¹⁶ FERNÁNDEZ DE LARREA, J. A.: *Los señores de la guerra y de la tierra [nuevos textos para el estudio de los Parientes Mayores guipuzcoanos (1265-1548)]*. Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 2000, 27.or.

13	1420	Joan Yartzu Saltzedo, Martin Lopez Murga eta beste zenbaitek Kexaako arziprestea erail zuten Kexaan.	843
14	1420	Sancho Lovo eta Joan Lovo anaiek, Martin de Amescorca de Largocha erail zuten Rioyadogan, tregoan zeudela.	832
15	1420	Ferrando Ganboa, Ladron Balda, Carames, Iraeta eta Atxega leinuetakoak, ganboatarren indar guztiekin Lazkaoko etxea erre zuten Gabon gauean, Joan Lazkaoren 12 urteko anaia Martin eta hainbat gizon erail zituztela.	788
16	(1420)	Joan Lopez Lazkaoren eta Lope Garcia Loiola eta Joan Lopez Yartzaren artean desadostasunak egon ziren denak oñaztarrak izanik ere. Lazkao Ladron Balda ganboatarrarekin elkartu eta Loiolaren eta Yartzaren etxeak erasotu zituen.	788
17	(1435)	Tristan Legizamon eta Galaz Legizamon anaien artean borroka izan zen, leinua bitan zatitu zeralik. Tartean Urkondoko arziprestea hil zuten.	805
18	1440	Rodrigo Ibarrek Otxoa Margallo Anuntzibai hil zuen tregoan zirelarik Gardean.	842-843
19	1441	Gatazka izan zen Zurbarandarren eta Arbolantxatarren artean, hauek bando berekoak izanik. Klean borrokatu zuten, bi aldetatik hainbatek bizia galduz.	806
20	1445	Persival Muxikak, bere aitaren lehengusuak ziren Ruy Sanchez Mendoza hil zuen eta honen anaia Martin Sanchez erdi hilda utzi zuen tregoan zeudela.	812
21	(1447)	Ibarguen leinukoek Sancho Ortiz Largatxa erail zuten bere etxean. Ondoren haren seme Sancho eta beste bi etxetik aterata akabatu egin zituzten.	853
22	1448	Otxoa Abadek, bere bizilaguna zen Pero Larrea Zarate hil zuen Zornotzan, biak Abendaño leinukoak izanik.	814
23	1448	Ganboatarrak Arrasateko hiriari su eman eta setiaturik zuten. Setizailetak bat zen Martin Ruiz Olasok, bere suhia zen Gomez Gonzalez Butroeri pasatzeko baimena bidaltzen dio gazte baten bidez, baina Lope Untzuetak hartu zion gutuna Butroek zela esanaz. Honek ihes egitea lortu zuen; Gomez Gonzalez Butroek, Joan Gonzalez sasiko semeak, eta Persival ilobak, ordea, ez.	814-815
24	(1448)	Zailan, Pero Gomez korrejidorea aurrean zutela tregoarako bildu ziren zamudiotarrak eta marrokindarrak, eta Maruri zein Arteaga leinukoak. Eztabaida piztu eta korrejidoreak ostatu hartzen zuen etxera sartu ziren. Borrokan Joan Arteaga, Sancho Maruri eta Martin Aedo erail zituzten.	851
25	1448	Txopino Anuntzibai eta beste batzuek Joan Ugarte hil zuten, tregoan zirela.	842-843
26	1450	Lope Aedok Lope Ugibar tregoan erail zuen, Arteaga leinukoa zena. Zortzi urte beranduago Sancho Lasierrek Arteaga leinukoa zena, Lope Aedo hil zuen Zallako larretan.	853
27	1452	Floresek, Galaz Legizamonen semeak, Legizamon leinuko beste hamabost gizonekin Lope Abando Zurbaran hil zuten Zabaiako bidean, tregoa hautsiz.	816
28	1455	Martin Terrerosek bere lehengusua zen Iñigo Terreros erail zuen Balmasedako merkatuan, buruan labankada bat emanaz.	852
29	1455	Zamudiotarren gizonen Joan Marrokin hil zuten Santxosolon, bere	854

		etxetik gertu tregoa zeudelarik. Marrokin Sant Perok ere hil zuten tregoa zeudela.	
30	(1455)	Urritiako alkatearen semeak eta haren lengusuak Joan Perez Larragorria hil zuten.	854
31	1456	Ibargoen leinukoek eta Rio Ayegakoek Sancho de la Vacuna hil zuten bidean topo egin zutela.	852
32	1456	Velasco Menaren jarraitzaileek Sancho Uriberen etxea erre eta ondoren hura akatu zuten tregoa.	852
33	1460	Martin Ruiz Arantzibiak, Joan Gonzalez Arteaga erail zuen, elkarrekin zebiltzala Mutriku inguruan.	816-817
34	1460	Eztabaida egon zen Villachican Villachica eta Ospines leinuen artean eta Sancho Agirrek, Pero Martines Villachica hil zuen mezatarako bidean.	843
35	1462	Ospinestarren bi armagizonen Martin Ribas erail zuten, Arteagan, lurra lantzen ari zela.	843
36	1469	Murga eta Ibargoen leinuetakoek Joan Perez Norrieza, Lope Labarrieta eta Martin Ferrero erail zituzten beren etxen parean tregoa zeudelarik.	854
37	Data gabe	Otxoa Ortiz Salzedo, Pero Larrea, Martin Norca eta beste Zamudiar batzuek Calderon Gordexola eta beste bi akabatu zituzten tregoa.	845

6. TRAZIO ETA LEIALTASUN EZAK

Irakurle ez adituak Bandoen Gerraz hausnartzean, seguruenik iruditegi kolektiboan txertatuta dauden Erdi Aroko bataila handiak irudikatuko ditu, burdin jantziz babestutako jaunekin. Baina horiek errege edo jaun handiek burututako kanpainak izan ohi ziren, giza-baliabideen eta errekurtsio ekonomikoen mobilizazio handia eskatzen baitzuen. Hau erreinuan edo erreinuetan zehar (zein atzerriko mertzenarioak) osatuta zegoen basailutza sare zabal bati esker lortzen zen, jaun feudal desberdinek eta honen basailu ziren gizonek erregearen zerbitzura borrokatzen zutelarik. Bortizkeria eta gerra mota hau, Estatuak zuzendutakoa alegia, egungo gizartean jurisdikzioak onartzen duen bakarra da, gerra publikoa. Estatuak biolentziaren monopolioa duen heinean, (polizia barne etsaien aurka aritzeko eta armada kanpoko etsaien aurka) gainerako bortizkeria fenomeno oro, legez kanpoko zigortua eta jarraitua da. Baina Behe Erdi Aroan egoera bestelakoa zen, Estatuak ez zuen biolentziaren monopolioa eta gerra pribatuaren fenomeno ohikoa zen. Bandoen gerrak, bortizkeria eredu horren baitan kokatu beharko genituzke *grosso modo*, bederen. Orokorrean etsaiak ziren eta leinu zein bandoetan antolatuta zeuden aitonen semeen arteko gatazka armatu txiki eta lokalizatuak izan ohi ziren, segadak, hirietako kaleetan borrokkak, aurrez adostutako erronkak, dueloak, etab. Gehienetan, parte hartzaile gutxi izan ohi ziren, hildako kopuruak gutxitan gainditzen

zutelarik bi zifrak. Hala ere XV. mendeak aurrera egin ahala, Bandoen Gerrak bortizkeriaren beren gorengo unera iritsi ziren, bandoen baitako aliantza sareek lurralde desberdinetako aitonen semeak biltzea lortuz. Hala, zenbaitetan hiru zifrak gainditzen zituzten borrokalari taldeen gatazkak eman ziren, ezagunenak 1448ko Arrasateko erreketeta eta 1468ko Elorrioko guda dira.

Gatazka hauek ez ditugu kontrolik gabeko gatazka armatu gisa irudikatu behar, baizik eta "como una suerte de legalidad alternativa con su propia lógica de pacificación"¹⁷. Garaiko instituzioak, hirietako kontzeju, eliza, zein koroak jabetun ziren gatazka hauek zein arazo zor zitzaketen gizartearen egonkortasunean, horregatik Europan zehar gerra pribatu hauek erregulazioen bidez kontrolatzen eta bideratzen saiatu ziren. Hala, gerra publikoan egin ohi zen bezala borrokaldiei erritu edo ohitura baten bidez ematen zitzaion hasiera, desafioa. Desafio hau ekintza publikoa zen, agintaritza notarial batek berretsia, gatazkaren hasiera eta partaideak erregistratuz. Era berean gatazkari modu publikoan ematen zitzaion amaiera, tregoarekin bitartez¹⁸. Hala ere, lan honetan ikusiko dugun bezala, maiz arau horiek ez ziren errespetatzen, bortizkeriaren areagotzea eragiten zuena eta aginte publikoen esku-hartzea behartuz.

6.1. FIDELTASUN ALDAKETAK

Bandokidearen etikaren baitan fideltasuna egon ohi da. Fideltasun hori agerikoa eta nahitaezkoa zen bandokideek erregearekiko zeukaten basailutza harremanean. Euskal aitonen semeak erregeren zerbitzari leial gisa jotzen zuten euren burua, haien zeregin nagusia erregeri gerra zerbitzuak eskaintzea zelarik. Hala ere, XIV. mendean argi geratu zen bezala, fideltasun edo basailutza horrek ez zuen zertan jaun edo errege batekiko eksklusibotasunezko harremana izan. Era honetan, Gaztelako koroaren basailu ziren zenbait Gipuzkoako jaun Nafarroako Karlos II. erregearen zerbitzura ibili izan ziren honen kanpaina desberdinetan, adibide garbia Amezketako jauna zen Pedro Lopez de Murua dugu¹⁹. Zerbitzu hauen arrazoa ez zen Karlos II. rekiko alegiazko kidesun bat, ezta bere proiektu politikoarekin bat egiten zutelako ere, arrazoa ekonomikoa zen eta bide beretik politikoa. Izan ere, bi sujetuen arteko harremana zen heinean bien arteko

¹⁷ FERNANDEZ DE LARREA, J. A.: *Las guerras privadas [el ejemplo de los bandos oñacino y gamboño en el País Vasco]*, Clío & Crimen, zbk.6, 2009, 87-109. orr.

¹⁸ Ibid., 88.or.

¹⁹ FERNANDEZ DE LARREA, J. A.: "Las Fuerzas de los Parientes Mayores en Álava, Guipúzcoa y Vizcaya en la Baja Edad Media [reclutamiento y organización]", *Iura Vasconiae*, zbk. 4, 2007, 163-188 orr.

adostasun batetik abiatzen zen, *quid pro quo* bat izan ohi zena, aurretik adostuz emango zen gerra zerbitzua eta trukean jasoko zena, feudoa.

Zentzu horretan ulertu behar dira bando baten barruan elkartzen zirenen arteko harremanak. Bandokideek ez zuten zertan ahaidetasun harreman bat izan, baizik eta agian momentuko interes ekonomiko zein politikoek bultzatuta sartu zirela bandoen sare horretan. Hau da, Ahaide Nagusiaren eta bere bandokide edo klientelaren arteko harremana ez zen norabide bakarrekoa, baizik eta bien arteko hartu-emanen oinarritzen zen. Beraz bando edo klientela sare hau ez zen finkoa edo aldagaitza izaten, harremana etengabe “berrikusten” zelarik²⁰. Horretaz gain, kontuan izan behar da bando bereko bandokideen arteko harremanak ez duela zertan ona izan, baizik eta soilik Ahaide Nagusi bati zor diotela eta alderantziz

Ondorioz, 19. kasuan ikusten da, nola Zurbaran eta Arbolantxa leinuak bando berekoak izanik ere gatazkan sar daitezkeela. Aipatu dugun bezela Salazarrek "profidia", hau da irainak izan zirela arrazoa diosku. Hala ere, ez dugu iraina gatazkaren arrazoi bakartzat hartu behar, zeresana izan ahal zuen bi leinuak espazio politiko eta fisiko berdinean jokatzeko zutela, Bilboko hiribilduan, interes politiko eta ekonomiko kontrajarriak izatea posible delarik. Gatazka honen ondorioz, bandoak partzialki berrantolatzen dira, Zurbarandarrak Butroetarren babesera igarotzen direlarik Arbolantxa leinukoak, ordea, Urkizutarrekin geratu ziren bitartean -Abendaño leinuari lotuz-. Beraz, gatazkak eta ondorengo fideltasun aldaketek ez zuten kataklismo bat eragin bandoen baitan, berrantolaketa bat baizik eta bi leinuen arteko etsaitasun amorratu bat.

16. kasuari dagokionez, arazoa argiago behatu ahal dugu. 1420 inguruan Joan Lopez Lakanoren, Lope Garcia Loiola eta Joan Lopez Yartzaren artean desadostasunak egon ziren “ovo discordia... seyendo primos e de una parentela”. Salazarren arabera Lazkaotarrak uste zuen “que no le acatavan la mejoría que devían e fizo su compañía con Ladrón de Balda, su enemigo”²¹. Beraz haien arteko harremana odolezkoa izateaz gain politikoa ere bazen, "parentela" berekoak baitziren, hots, “conjunto de individuos que son reclutados como miembros de un determinado linaje en función de sus vínculos

²⁰DACOSTA, A.: *Los linajes de Bizkaia en la Baja Edad Media [poder, parentesco y conflicto]*. Bilbo, EHU, 2003, 163. or.

²¹VILLACORTA MACHO, C.: *Libro de las Buenas Andanças e Fortunas que fizo Lope García de Salazar*. Bilbo, EHU, 2015, 788. or.

de parentesco”²². "Parentela-ren" barne jerarkizazio sendo baten menpe egon ohi da, harreman hauek leinuaren barruko zerbitzu eta ondasunen banaketari lotuak egoten dira²³. Kasu honetan arazoaren muina ondasunen banaketan izandako desadostasunek dirudite. Zehazki "mejoría" terminoa oinordetzari lotutako gaztelerazko terminoa da. Oinordetza leinuaren baitan, barne jerarkiarekin edo "valer más" ezagunari lotua egon ohi zen. Salazarrek dioenaren arabera badirudi, Lazkaori, leinuko burua zenari²⁴, ez zitzaiola *mejoría* hori nahikoa iruditu.

Irain handitzat hartuko zuen Lazkaok zeren eta ganboatarra zen Ladron Baldarekin elkartu zen: "fizo su compañía". Kontuan izan behar dugu lehenago Ladron Baldak Lazkaoko etxea erasotua zuela eta haren 12 urteko anaia hil, beste hainbaten artean. Baina hori ez zen oztopoa izan eta elkarrekin Loiolako etxea erasotu zuten, baina ezin izan zuten hartu, Yartzaren etxera joan ziren, behera botaz. Honen ondorioz, Lope Garcia Loiola, Oinaztarren artean babesik jaso ez zuela ikusirik, bere gizon guztiekin "con todos los mayores y menores" Martin Ruiz Ganboaren "atreguado" bihurtu zen.

Ikusi dugun bezala, leinu zein bandoen arteko oreka mantentzea ez zen erreza, haien arteko elkartasunezko harremanak amaitutzat eman daitezkeelarik. Gainera Oinaz bandoaren baitan arazoak eragin zituen, gatazka honen inguruan bandokideek erakutsiriko pasibotasunak, Lope Garcia Loiola Martin Ruiz Ganboaren aliatu bihurtzea eragin zuelarik, babesa eta mendekua bilatu nahian. Kasu honetan ere, ikusten da erasotzaileetako bat zen Ladron Balda, ganboatarra izatea ez dela gaindiezinezko arazotzat ikusten bandoz aldatzerakoan. Aurkako adskripziokoak diren leinuen arteko aliantzak oso arraroak izan ohi dira eta normalean, kasu honetan bezala, "este tipo de acuerdos conllevan algún tipo de conflicto anterior y ulterior en el seno del bando que integra el linaje"²⁵. Honenbestez, zenbaitetan Ahaide Nagusiak aurrera emandoko estrategiak "lleva a enfrentamientos fraticidas o a pactos contra natura"²⁶. Hala ere, hortik gutxira Yartzatarren eta Lazkaotarren arteko harremana konpondu zela dirudi²⁷. Salazar bera jabedun izango da zenbait aliantzak ez dutela luze iraungo; izatez, berak

²² DACOSTA, A., Op. cit. 185. or.

²³ Ibid., 186. or.

²⁴ FERNÁNDEZ DE LARREA, J. A.: *Los señores de la guerra y de la tierra [nuevos textos para el estudio de los Parientes Mayores guipuzcoanos (1265-1548)]*. Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 2000, 50.or.

²⁵ DIAZ DE DURANA, J. R. eta DACOSTA, A.: *La dimensión social del liderazgo del linaje [solidaridad, poder y violencia (País Vasco, siglo XV)]*, Studia Zamorensia, Vol. XII, 2013, 87-106. orr.

²⁶ Ibid., 99.or.

²⁷ FERNANDEZ DE LARREA, J. A., Op. cit., *Señores de la guerra*, 28.or.

ere *contra natura* hitzak erabili zituen berari eragin zion aliantza baten hausturaz hitz egitean: “partieronse las compañías d’entre estos linajes, porque las cosas de contra natura no pueden mucho durar, e feziéronse unos Ochoa de Salazar e çamudianos”²⁸. Salazarren beste aipu bat ere azpimarragarria da, non 1340ean lehengusu ziren Sancho Ortiz Marrokin Montermoso eta Otxoa Lopez Gordexolaren artean aliantza aldaketa ere eragin zuen gatazkaz idaztean honela dio: “E la causa d’ello fue a cuál valería más en la tierra, como acaece en muchos logares”²⁹. Beraz, garaian bazekiten zein ahula izan zitekeen leinuen arteko kidetza, senideak izanda ere.

6.2. LEINUAREN BURUTZAREN INGURUKO TENTSIOAK

Esan bezala Ahaide Nagusiek beren aginpidetza bermatzen saiatuko ziren leinuaren baitan; nagusitasun hori "más valer" goiburuan oinarritzen zen, ondasun materialetan zein nagusitasun politikoan oinarritzen zena neurri handi batean. Horrexegatik, aginpidetza horren ondorioa den heinean, Ahaide Nagusiak izan behar du leinuaren onuradun nagusia eta ez beste inork. Bide honetatik datorkigu 2. kasua, non 1338an Joan Abendañok, bere lehengusua eta Aramaioko jauna zen Pero Ortiz Abendaño hil zuen Urgutin, biak bakarrik zeudela bizkarretik erasotuz. Salazarrek ematen duen arrazoia “porque en Arratia no manda más que no él, que era tenido por mayor”³⁰. Ez ginateke leinuaren etikaren apurketaren aurrean egongo, “sino ante la aplicación del principio de acrecentamiento del solar propio”³¹. Bandokideek bazekiten beren nagusitasuna bortizkeriaren erabilerak bermatzen zuela, izatez ekintza zuzenaren erabilera politikoa beren oinarri ideologiko nagusia zen. Hala Joan Abendaño pentsamendu kode horren baitan jokatzeko du, leinuaren baita "más valer" hori bermatzeko.

Horrelako ekintzek adierazten digute hainbestetan aipatu dugun "más valer" horren kontraesanak "por cuanto supone una manifestación del libre albedrío personal contrario a la unidad de acción del linaje"³² alegia, norbanakoaren interesak gainjartzen dira kolektiboaren interesen kalterako.

²⁸ VILLACORTA MACHO, M. C., Op. cit., 848.or.

²⁹ Ibid., 844.or.

³⁰ Ibid., 798. or.

³¹ DACOSTA, A., op. cit. 88. or.

³² Ibid., 88. or.

6.3. AHAIDE NAGUSIARI TRAZIOA ETA MENDEKUA

Leinuaren jarraikortasunaren berma eta honen indartzea Ahaide Nagusiaren eskuetan geratzen zenez, hari egokitzen zitzaion leinua gidatzea, bere kideak babestea, familiaren ondarea areagotzea eta beharrezko den kasuan, mendekua burutzea. Gidaritza hori ez zen lan erraza izango, aurretik batzuk aipatu ditugun arren ulertu eta ezagutzen ez ditugun arazo ugari sortu ahal baitziren leinuaren baitan. Esaterako, 1410ean Joan Landak eta beste zenbaitek Ferrando Lezama, bere seme Iñigo Lezama eta iloba Rodrigo Basazabal eta beste hainbat hil zituzten, desafiaturik zituztelarik, bere aitaren heriotza zela eta. Kontua da, lezamatarren aurkako erasoan parte hartu zutenen artean, Diego Okila zegoela, Ferrando Lezamaren iloba, Diego Lezamaren biloba. Salazarren arabera, Diego Okilaren aita Juan de la Herreriak erail zuen, zeina badirudi Ferrandoren tregoa zela: “lo sostenía el dicho Ferrando”. Diegok bere aitaren hiltzailea barkatu nahi ez zuenez, Ferrandok bere lurretatik kanporatu zuen “lo avía echado este Ferrando de Leçama de la tierra”.

Kasu honetan ikusi dugunez, Ferrando Lezamaren senitartearen baitan erailketa bat eman zen, non Juan de la Herreriak Ferrandoren gerlari gisa identifikatu dugunak, Ferrandoren iloba zen Diego Okilaren aita hil zuen. Zoritxarrez, Salazarrek ez digu informazio gehiago ematen horren inguruan. Gertakari honek nahitaez Ahaide Nagusiaren esku-hartzea eragin beharko zuen, bi aldeen arteko bitartekari gisa. Izan ere, Ahaide Nagusiak bere harremanetan paper desberdinak hartzen zituen, *pater familias*-arena senide eta gertukoekin, jaunarena basailu eta morroiekin, zein patroiaarena kideekin³³. Logikaz pentsa genezake, Okilaren osaba zen heinean Ferrandok Ahaide Nagusi gisa, leinuko kideetako bat babestu ez zuenez mendekua burutuko zuela eta Herreriaren aurkako neurriak hartu. Bada ez dakigu zergatik, koiuntura politikoak kasu, bere iloba lurretatik kanporatu zuen. Honek aurrez pentsa ez zezakeen amaiera eragin zion, ilobaren partetiko erailketa. Hasieran esan dugun bezala, Ahaide Nagusiak mendekua burutu behar zuen, kasu honetan ez zen hala izan, ez Diego Okilaren gusturako gutxienez. Kontrara Joan Landak, leinu buru gisa bai mendekatu nahi zuen bere aitaren heriotza eta mendeku bila zegoen Okila izan zuen bidelagun.

³³ DIAZ DE DURANA, J. R. eta DACOSTA, A., op. cit., 91. or

6.4. OHORERIK GABEKO EKINTZAK

Ikusiko dugun bezala, leinuaren baitako eraso eta erailketak ohikoak izan ziren Bandoen Gerretan, lan honetan agertzen diren traizio asko leinuaren baitan emandako hilketak direlarik. Baina Salazarrek ez ditu halako ekintzak gaitzesten, ez du hauekiko iritzi bat ematen Dacostaren arabera “esto revela las contradicciones de la mentalidad hidalga, sostenida sobre la percepción imaginaria de la realidad, más que sobre un análisis objetivo de la misma”³⁴. Izatez, bandokideen arteko erailteza baino, erailketa edo eraso hauek burututako modua kritikatzeko du, tregoa zeudelarik burututakoak edota biktimari defendatzeko aukerarik eman ez izana bereziki. Gertakari hauek azaltzean, "a traición", "mató malamente" edo "a mala verdad" gisako terminoak erabili izanak, ohorerik gabeko ekintzat jotzen dituela adieraz lezake. Azpimarratzekoa, kronistak balorazio handiagorik egin gabe eta hotz kontatzen baititu gertakari odoltsu ugari. Gisa honetakoak dira ondorengo kasuak.

1417an bi leinu hauen artean tregoa zegoelarik, Perutxote Marrokin Otañesek *malamente* bizkarretik gezi batez larriki zaurituta utzi zuen Sancho Otañes, etxeo eskaileretan zela³⁵. 1420an Sancho Lovo eta Joan Lovo anaiek, Martin "Ameskorka" de Largetxa erail zuten Riodayogan “en buena tregua e paz malamente” defendatzeko aukerarik izan gabe, “lo ferieron antes que los viese”³⁶. 1447an, Iburguen leinukoek Sancho Ortiz Largetxa erail zuten "malamente" bere etxean. Salazarrek kontatzen duenez “era omne de bien e paziego”. Ondoren haren seme Sancho eta beste bi etxetik atera zituzten "a salva fe", hau da, ezer egingo ez zitetela esanda eta akabatu egin zituzten³⁷. Emandako hitza ez betetzea, nobleen etikaren aurka zioan bete betean³⁸. 1445 Persival Muxikak, Ruy Sanchez Mendoza hil zuen eta honen anaia Martin Sanchez erdi hilda utzi zuen “en treguas malamente”. Ez zuen erreparorik izan bere aitaren lehengusuak zirenak (Arteagako orubekoak) hiltzeko³⁹.

Esan bezala, kasu hauetan zenbait eredu errepikatzen dira eta kronistak argi adierazten du ekintza horiekiko mespretxua. Baina erasotzailearen leinukoek zer iritzi duten ez

³⁴ DACOSTA, A., op. cit. 88. or.

³⁵ VILLACORTA MACHO, M. C., op. cit. 869. or.

³⁶ Ibid., 832. or.

³⁷ Ibid., 853. or.

³⁸ FLORI, J.: *Caballeros y Caballería en la Edad Media*. Barcelona, Ediciones Paidós Iberica, 2001, 170. or.

³⁹ VILLACORTA MACHO, M. C., op. cit. 812. or.

dakigu kasu hauetan. Kontuan izan behar da horrelako ekintzek gerra pribatuaren arauak urratzen zituela, izan ere aitonen semeek erailketak gauzatu ahal zituzten arren, zenbait kasutan (tregoa aurkaria akabatzea kasu) debekatuta izango dute, justiziak delitu gisa ulertzen zituelarik. Beraz “un grupo de atreguados de un linaje involucra al linaje en un conflicto”⁴⁰. Honek ondorio latzak izan ahal zituen, izan ere adostutako bakea haustean gatazka berpizten zen, leinua arriskuan jarriz. Gogoan izan behar da erret justiziak berak mendeku pribatu onartzen zuela, muga batzuekin bederen, non “los condenados a la pena capital en rebeldía fueran muertos por los parientes hasta el cuarto grado de sus víctimas”⁴¹. Ondorioz logikoa litzateke Ahaide Nagusiaren esku-hartzea borreroen aurka, leinuaren etika eta biziraupena bere ardura baitira. Horrelakorik ere topatu dugu kronikan.

1415ean Diego Gonzalez Quincosese, angulotarra izatez, Joan Luze Lorengo, salazartarra, erail zuen bere etxetik gertu "a mala verdad". Salazarrek dio arrazoi sendorik gabe erail zuela, bere izena handitzearen. Aipatu bezala, hiltzailearen leinuan ez da begi honez ikusten halakorik, pasarte honetan nahiko argi diosku kronistak: “e oviéronlo por mucho mal todos los de Angulo”. Diego epaitua izan zen eta erbestean egin zuen bere azken hatsa⁴². Bide beretik datorkigu ondorengo kasua, 1452an Floresek Legizamon leinuko beste hamabost gizonekin Lope Abando Zurbaran hil zuten Zabaiako bidean. Adosturiko tregoa hautsiz: "en tregua malamente". Ondorioz, hiltzaileak "fueron açotados e mucho travaxados por ello" kontatzen digu kronistak⁴³; testuinguru horretan, "açotado" -edo "acotado"- hitza legez kanpo gisa ulertu behar da. Tregoa ez errespetatzeak eta justiziak bilatua izateak heriotzara kondenatua izateko arriskua zekarren. Hala gertatu zen 1462an, non “dos lacayos de los ospines” Martin de las Ribas erail zuten, Arteagan, “estando a trillar, malamente”. Justiziak erreklamatuak izan ziren eta Burgosen heriotza zigorrera kondenatuak⁴⁴. Horrez gain, ohore galera zekarren, baita gainontzeko ahaideen faborearen galera zein. Hau dela eta, askok ihes egitea erabakitzen zuten. Horrela dio: “E perdióse este Flores con otros d’ellos en la Varra de Portogalete en una pinça”⁴⁵.

⁴⁰ DACOSTA, A., op. cit. 89. or.

⁴¹ FERNANDEZ DE LARREA, J. A.: “Lucha de Bandos y guerra a sangre y fuego”, *ASJU*, XXIX-2, 1995, 697-699. orr.

⁴² VILLACORTA MACHO, M. C., op. cit. 832. or

⁴³ Ibid., 816. or.

⁴⁴ Ibid., 843. or.

⁴⁵ Ibid., 816. or.

Beste zenbait kasutan, ordea, badakigu “açotado” horiek nora joan ziren. 1460an “ovo discordia” Villachican Villachica eta Ospines leinuen artean “seyendo una valía” eta Sancho Agirrek Pero Martinez Villachica hil zuen “malamente”, “con un rallón detrás de una mata fuendo a misa”. Ondorioz, justiziak bilatu zuen, baina Errioxara joan zen bizitzera Ladron Laibarekin babestuz⁴⁶. Hildo beretik Ochoa Ortiz Saltzedo, Pero Larrea, Martin Norka eta beste zamudiar batzuek Calderon Gordexola eta beste bi akabatu zituzten tregoa, “e fueron açotados e echados de la tierra”. Hala, delituak preskribitu bitartean “fueron sostenidos” Solorzanon⁴⁷ (Kantabrian). Bertan ikusi daiteke nola zenbait kasutan, “açotado-ak” justiziak erreklamaturako lurretatik ihes egin behar zuen arren, “parentelak” bizkar eman baino, hau babesten zuela, eginkizun eta bizileku berriak egotziz zigorrak iraun bitartean, bederen.

Bada beste kasu bat ordea oso interesgarria, zeinetan helburuak berdinak izan ziren arren emaitza ez zen izan “açotadoak” bilatzen zuena. 1460an Martin Ruiz Arantzibiak (Arteagako orubekoa zena), Joan Gonzalez Arteaga erail zuen, “mató malamente” elkarrekin zebiltzala Mutriku inguruan. Salazarrek emandako arrazoa honakoa da: Martin Ruizek maitale gisa hartu zuen -“tomo por amores”- Joan Gautinis zenduaren emaztea, Martin Ruiz Ganboaren arreba zena. Emakume horren senarra eta aita hilik zeudenez, Arantzibia Ondarroan ezarri zen alargunarekin eta praktikan haren ondasunetaz baliatu zen “ocupávales los bienes, que eran muchos”. Baina Joan Gautinisen ama, jada zaharra zena, bere familiaren ondasunak galtzeko beldurrez edo, Joan Gonzalez gaztearekin ezkondu zen eta Mutrikun elkarrekin bizi ziren “porque le defendiese sus bienes”. Badirudi, Arantzibiari ez zitzaiola gustatu Joan Gonzalez Arteagak bere kontuetan muturra sartu izana eta irabazitakoa galdu baino nahiago izan zuen gaztea erail. Mendekuaren beldurrez Lapurdiko senide batzuegana ihes egin zuen, baina hauek babesa eskaini beharrean “lo mataron con yerbas”⁴⁸. Arantzibia bere senideek pozoinduta hil izana ohorerik gabeko ekintza iruditu ahal zaigun arren, bandokideak ez du inongo baloraziorik egiten traizio horren inguruan. Ulertu genezake beraz hilketa zein modua begi onez ikusten zuela. Nola diren gauzak, aditu gehienak bat datoz: Salazar bera senideek eraila izan omen zen, preso zutelarik pozoinduriko janariaz.

⁴⁶ Ibid., 843. or.

⁴⁷ Ibid., 845. or.

⁴⁸ Ibid., 816-817. orr.

Azkenik bada beste kasu bat non Salazarren arabera hilketa bidegabekeria izan zen. 1448an Otxoa Abadek, Pero Abendañoren sasiko anaia zenak, bere bizilaguna zen Pero Larrea Zarate hil zuen “a mala verdad” Zornotzan, biak Abendaño leinukoak izanda ere. Erail ondoren, haren etxean sartu, lapurtu eta su eman zion. Hortik gutxira Larrearen semeek Otxoa Abad erail zuten⁴⁹. Kasu hau berezia da, ez bando berekoak zirelako edota “a mala verdad” erail zuelako, baizik eta hil ondoren “entró en la su casa e rovola e después quemola e derribola”. Gerra pribatuaren arauen arabera hil ahal zen, baina ez erre, ezta botina eskuratu ere⁵⁰. Jakina da, euskal aitonen semeen kasuan gerra pribatuaren arauak ez zirela betetzen, adibide ugari daude horren adierazle, desfiorik egin gabeko erailketak, tregoa apurketak, dorretxe zein hiribilduen erreketak; lapurretaren aipua, ordea, ez da batere ohikoa.

6.5. KRISTAU ETIKAREN AURKAKO EKINTZAK

Sobera adibideekin ikusi dugu Bandoen Gerretan, aitonen semeen errespetu gabezia. Maiz ez zituzten Gerra pribatuaren arauak errespetatzen, tregoetan segadak eginaz edo itxuraz arazorik ez zegoenean elkar akabatuz. Errespetu gabezia, Erdi Aroko munduari zentzua existentzial eta espirituala ematen zion erakundeari ere zabaltzen zen. X. mende inguruan, jaun eta zaldunen partetik eman zen bortizkeri uholdearen ondorioz bortizkeria hori bideratu eta mugak jartzeko beharra ikusi zen⁵¹. Hau dela eliz erakundeek, jaunen onarpenarekin zenbait fenomeno sustatu eta ezarri zituzten, oinarrizkoak Bake Santua eta Jainkoaren Tregoa izanik. Bake Santuaren arabera, gurtzarako eraikuntza erlijiosoak eta haien jarduna Jainkoaren zerbitzura bideratzen zuten gizonak, bortizkeriatik salbu egon behar zuten, kontrakoa eskumikazioarekin zigortzen baitzen. Modu berean, Jainkoaren Tregoa egun sakratuetan bortizkeria ez erabiltzea behartzen zuen igande, santu nagusien egunetan, zein kristau egutegian garrantzitsuak diren egunak. Jarraian azalduko diren adibidetan ikusiko dugu, bandokideek Jainkoarengan eta zeruan sinesten baldin bazuten, batzuek beldur gutxi ziotela Jainkoaren mendekuari.

Lehenengo kasua 1350ean izan zen, Larrinbeko elizan (Amurrion) kontzejua mezan zegoela eztabaida piztu zen “sobre palabras e profidia” eta Perea Ayalaren

⁴⁹ Ibid., 814. or.

⁵⁰ FERNANDEZ DE LARREA, J. A., op.cit., (Lucha de Bandos...), 699. or.

⁵¹ Arrazoa konplexuagoa da. Ikus., FLORI. J.,: “La iglesia y la guerra”, in op. cit. 179-198. orr.

jarraitzaileek Diego Ferrandez Ospina Ugarte erail zuten⁵². Urte berean eta arrazoi berdina tarteko Mendibil leinukoek Pero Ospina erail zuten “sobre palabras en una misa nueva”⁵³. Bigarren kasua aski ezaguna da, 1420ko Gabon gauean Ferrando Ganboak, Ladron Baldak, Carames, Iraeta eta Atxega leinukoak Lazkaoko etxea erasotu eta erre zuten. Hamar bat gizon hil zituzten, baita Joanen anaia Martin 12 urtekoa ere. 1414an Mungiaiko hiribildu aurrean Gonzalo Gomez Butroe eta bere gizonak Abendaño eta villedatarren aurka borrokatu zirenean ez zuen erreparorik izan, hiribilduaren kanpoan zegoen Santa Maria *la Vieja* eliza gotorleku gisa erabiltzeko⁵⁴. Ikusi eta ikusiko dugun bezala ohikoa zen eztabaida batek hilketara eramatea, kontuan izan behar da eliza izanik ere jaunek eskubidea zutela armak gainean eramateko⁵⁵.

Bortizkeria honetatik eliz gizonak ez ziren libratzen. Horren adibide dugu 1435 inguruan Legizamon leinuaren baitan emandako gatazkak zirela medio Urkondoko artziprestea erail zutela⁵⁶. Ildo beretik, 1420an Joan Yartzu Saltzedo, Martin Lopez Murga eta beste zenbaitak, gau batean basoan sutondoan zegoela Kexaako artziprestea erail zuten Kexaan “con un rallón”⁵⁷. Gordexolako borroketan, Largatxa leinukoek Ibainguengo fraidea akabatu zuten, azpimarragarria hura erail zuten modu krudela “lo corrieron dos leguas por montes e ríos fasta Mena e morió del cansancio luego”⁵⁸. Azkeneko kasuak, hurrengo atalerako bide ematen digu, ikusiko dugun bezala, gertakaria ez baitzen horretan geratu, non Sancho Diaz Largatxak, Martin Anguloren osabak, Diego Gomezen aita zen Viergoleko abadea hil zuen⁵⁹.

6.6. AURRETIK PENTSATUTAKO TRAZIOAK

Aurretik, traizio eta leialtasun kasu ugari ikusi ditugu, noren artean, zein modutara eta izandako ondorioak aztertuz. Atal honetan ikusiko dugu nola zenbaitetan traizio horiek, aurrez pentsatuak diren, bandokideak urteak itxaroteko gai zirelarik, beren biktimaren konfiantza irabazi ostean mendekua burutzeko. Horren adibide garbia aipatutako azkeneko kasua dugu. Abadea hil ostean bi familien artean gatazka kiribil bat sortu aurretik akordio batera iritsi zirela dirudi: “ E despues perdonáronse todos e casó este

⁵² Ibid., 841. or.

⁵³ Ibid., 841. or.

⁵⁴ VILLACORTA MACHO, M. C., op. cit. 800-801. orr.

⁵⁵ FLORI, J., op. cit. 263. or.

⁵⁶ VILLACORTA MACHO, M. C., op. cit 805. or.

⁵⁷ Ibid. 843. or. Basurdetarako erabiltzen zen dardo mota, eragiten zuen zauriagatik pertsonen aurka erabiltzea gaizki ikusia zegoen gizartean eta zigortua Gipuzkoan.

⁵⁸ Ibid. 854. or.

⁵⁹ Ibid. 832. or.

Diego Gómez con una hermana d'este Martín de Angulo e tenía fijos e fijas en ella”⁶⁰. Ezkontza hori egun zentzugabea iruditu ahal zaigun arren “el matrimonio se revela como un eficaz mecanismo de resolución de conflictos entre los linajes vizcaínos bajomedievales”⁶¹. Nola nahi ere, ezkontzaren bitartez zaila ziruditen aliantza politikoak burutzea erraztu zezakeen. Hala ere, adibide ugari daude horrelako aliantzek ez zutela beti arrakasta izaten erakusten dutenak⁶² eta hau horietako bat da. Izan ere, 1420an Diego Gomezek eta Menillo Gordexolak Martin Angulo afaltzera gonbidatu zuten, “e andando como hermanos” lantzekin bizkarrez erasotu eta burua moztu zien. Hilketa horrekin Diego Gomezek bere aitaren hilketa mendekatu nahi zuen eta berdín izan zitzaien orainean bere senitarteko zenarekin amaitzea eta bere egunerokotasunarekin amaitzea, zigortuak izan baitziren eta erbestera kondenatuak. Era berean, 1450ean Lope Aedok “malamente en tregua” erail zuen Lope Ugibar, Arteagakoa zena. Lehenak besteari etxe baten barnekaldetik saeta bat jaurti zion Ugibari. Zortzi urte beranduago Sancho Lasierrek, Arteagakoa zenak, Lope Aedo hil zuen Zallako larretan “estando en buena paz solos ambos”⁶³. Nabarmentzekoa da, Salazarrek lehen hilketa "malamente" hitza erabiltzen duen bitartean, mendekuaren hilketa aipatzerakoan ez, nahiz eta bakean zeuden, zilegi iruditu zitzaiola pentsa genezake honenbestez.

Azkenik, 1330an Iburgueno ezkutariak Joan Ruiz Zaldibar hamabost gizonekin Iburgueno dorrean jatera gonbidatu zuten. Jatera eseri zirenean Iburguenoek “sal, sal” esan eta ezkutaturik zeuden berrogeita hamar gizon irten ziren Zaldibar eta bere gizon guztiak akabatuz⁶⁴. Izatez Zaldibar eta Iburguen leinuetakoen artean bakea ezarri behar zuen afariak sekulako sarraskia eragin zuen Zaldibarko leinuan. Gertakariak euskarazko esamolde bat utzi zuen: *Gaçean, gaçean, baya es Iburguengerean*⁶⁵.

6.7. BAPATEKO BEROALDIA

Askotan ordea, traizioak eztabaida batek edo desadostasun batek eragin dezake. “profidia e palabras” hitzak erabiltzen ditu kronistak, "profidia", "perfidia" ulertu beharko litzateke leialtasun eza edo irain gisa. Hau iraina arrazoi nahikoa izango da

⁶⁰ Ibid. 832. or.

⁶¹ DACOSTA, A., op. cit. 209. or.

⁶² Idem. 210. or.

⁶³ VILLACORTA MACHO, M. C., op.cit. 853. or.

⁶⁴ Idem. 794. or.

⁶⁵ ARRIOLABENGOA, J.: “*Euskara Iburguen-Cachopin kronikan*”, Bilbo, Euskaltzaindia, 2008, 122. or.

gatazka pizteko, aitonen semeek euren ohorea mespretxatua izatea oso larritzat jotzen zutela dirudi. Horrelako ekintzarik ezin zuten onartu “más valer” baitzegoen jokoan. Kasu gehienetan momentuko beroaldiak bultzatuta, burutzen diren hilketak izaten dira. Aurretik aztertutako kasuetan ikusi dugun bezala senitarte berdinekoak ziren bandokideen artean gerta zitekeen edota aurretik harreman gatazkatsua zutenen artean. 1395ean Adan Yartza *el Viejo* eta Adan, bere semeak Pero Ortiz Arantzabia, Arteagako jauna, erail zuten, "azeña" batzuk elkarrekin egiten ari zirela “que avían en uno sobre profidia e de palabras”. Bi familien arteko etsaitasunaren jatorrizko arrazoa dugu, Salazarren arabera⁶⁶. Bestetik 1455ean Martin Terrerosek bere lehengusua zen, Iñigo Terreros erail zuen Balmasedako merkatuan “metiéndolo en palabras” buruan labankada bat emanaz⁶⁷. Azpimarragarria ez zuela erreparorik izan lehengusua hiltzeko eta gainera denen begien aurrean, merkatuko bake publikoa hautsiz.

6.8. TRAZIO ENTZUTETSUA

Bandoen Gerretatik gaurdaino iritsi den pasarte nagusia 1448ko Arrasateko erreketak izan da. Gertakari hartan oñaztar eta ganboatar bandoen aliantza sareek ordu arte ikusi gabeko indarra erakutsi zuten, Bizkaiko eta Gipuzkoako leinu eta hauen jarraitzaileek parte hartu zutelarik. Guraia hiriko leinuak Gomez Gonzalez Butroeren laguntza eskatu zuten. Honek, ahalik eta jende gehiena bildu eta oñaztar leinukoen laguntzaz hirira sartu zen. Hauen aurka egitera ganboatarrak joan ziren Pero Velez Gebara, Pero Abendaño, Martin Ruiz Arteaga eta Martin Ruiz Ganboa buru zirela. Hiria hartu ezin zuten, setioa ezarri eta su eman zien, oñaztarrak kanpora irtetera behartu nahian. Oñaztarrak galdurik zeuden eta Martin Ruiz Olaso, Martin Ruiz Ganboa alegia, bere suhia zen Gomez Gonzalez Butroeren biziak errukitzen da eta gazte bat bidaltzen du Butroeri zuzenduta, pasatzeko baimenarekin. Alegia Olosok bere bandoarekiko leialtasuna urratu zuen. Baina gazteak, Lope Untzuetarekin egin zuen topo eta honek Butroek zela esanaz “daméla que yo só”, eskutitza hartu eta irakurri zuen. Honek, hitzartutako bidetik ihes egin zuen arazorik gabe, Butroek zela uste baitzuten. Ondorioz, Ahaide Nagusia, Joan Gonzalez sasiko semea, Persival bere iloba eta beste hogeita bost gizon hil ziren⁶⁸. Honenbestez, bando desberdinekoak, baina senideak ziren Ahaide Nagusien arteko elkartasuna ikusten da, bandoarekikoa hautsiz. Era berean jaunarekiko leialtasun ezaren adibide garbia dugu Untzuetaren aldetik. Traizio horrek bere oihartzuna izan zuen,

⁶⁶ VILLACORTA MACHO, M. C., op. cit. 795. or.

⁶⁷ Ibid. 852. or.

⁶⁸ Ibid. 814-815.or

lehenengo aldia izan baitzen leinu nagusiko Ahaide Nagusi batek borrakaldietan bizitza galdu zuena. Mitxelenaren lanean, ondorengo bertsoa topatu daitekeelarik:

[G]alddila Vnçueta ta Vergara

[Ç]aldibarrec bere partea debala.

[Ar]amayo, suac erre açala.

[T]a sumi a[.]la Gurayarra,

Cerren ceuren jauna ezencan empar⁶⁹.

7. ONDORIOAK

Bandoen Gerretan eman ziren zenbait fideltasun aldaketek zein traizioz egindako hilketak aztertu ondoren, horrelako gertakariak uste baino gehiagotan gertatzen zirela esan genezake eta euren protagonistek nahiko normalizaturik zituztela halako gertakariak. Honenbestez, Bandoen Gerren inguruan, bandoen arteko lehia eta tensioari beste aldagai bat gehituko litzaioke, bandoaren baitako gatazkak eta bereziki leinuaren baitan ematen zirenak. Honek aldi berean agerian uzten ditu bandoetaz egin daitezken azaleko irakurketak, bandoen aldakortasuna eta dinamismoa mahaigaineratuz, egun hutsalak iruditu ahal zaizkigun arrazoiak nahikoa izan baitaitezke etxekoa etsaitzat hartzeko eta etsaia adiskidetzat.

Aitonen semeen etikaren oinarriak ezartzen ikerlari asko saiatu dira, Arsenio Dacosta tarteko. Honek esan bezala, beren etika eta pentsamendua oso malgua zen, honekiko hurbilketa oso lan konplexua eta zalantzas bete delarik. Aztertutako kasuek egungo ikuspuntutik bandokideen etika gabezia handia adierazten dute, baina euren garaiko logika baten baitan egindako ekintzak izan behar zuten. Gertakari horien logika edo azalpen hori ematen ahalegindu gara, leinuaren baitan jazotako hilketak eta traizioak arrazoi desberdinak izan zitzakeela. Hala arrazoiak leinuaren lidertzarekin, errentaren birbanaketarekin, ezkontza aliantzekin edo eztabaida eta irain batzuekin erlazionatuak egon daitezke. Traizio hauek momentuko beroaldi edo koiuntura politikoen ondorio izan daitezke, baina baita urteetan atzera egiten duen gertakariak izan ditzakete eragile.

Zenbaitetan Salazar bera da ekintza horiek gaitzesten dituen, bandokide horien etika zalantzan jarriz. Tentuz hartu behar dugu, ordea, bere kronika, bere ikuspuntutik

⁶⁹ MICHELENA, L.: *Textos arcaicos vascos*. Donostia, EHU-UPV, 1990, 82. or.

kontatuak diren gertakariak baitira. Honela Salazarrek ohorerik gabeko hilketa gisa izendatzen zituen kasu batzuetan, ekintzailearen leinuak bizkar emango zion, beste zenbaitetan aldiz justiziaren aurrean babestu egingo zuen. Hau balore etiko desberdinen adierazle izan daiteke.

Argi geratu da, bandokideen bortizkeriak ez zuela muga garbirik eta hau kontrolatu eta arautzeko neurriak hartu ziren arren, ezin zitekeela ezer handia egin adostutakoa bete nahi ez zuenarekin. Leialtasun gabezia hau Jainkoarekiko ere bazen, izatez lurrean bere ordezkariak zirenak ere ez baitziren libratu Bandoen Gerretan. Hala eta guztiz ere, ezin genezake esan aztertutako kasuak ohorerik gabeko ekintzak izan zirenik, ohorearen kontzeptua norbanakoak ohoreaz duen eta gainontzekoek duten ideiarekin arteko dialektikan oinarritzen baita. Kasu gehienetan balizko ohorerik gabeko ekintzak egin zituztenak, beren "más valer" mehatxatua ikusi izanak bultzatu zituen hartara, norberaren ohorearen balioa gainontzekoen aurretik jarritz. Izan ere, ikuspuntu desberdinak egon arren, aitonen semeek bazuten ohoreari zuzenki loturik zegoen ideia bat, biolentziaren erabilpena. Hala, gerlari handia izatea, ohore handiko pertsona izatearen sinonimo zen gizarte batean, hilketak ez du arazo handirik suposatzen norberaren izena handitzeko balio badu bederen, "por acrecentar su nombre".

Amaitzeko, ikerketako sakonago baterako ateak zabalik daudela haintzat har dezakegu, argi baitago oraindik aztertzeke geratzen direla kontutan hartu gabeko hainbat kasu eta faktore. Horretarako Lope García de Salazarren lana funtsezkoa izango dugu, baita leinu eta bandoen barne harremanen inguruko ezagutzan egin daitezkeen aurrera pausu oro.

8. BIBLIOGRAFIA

Lehen Iturriak:

ARRIOLABENGOA, J.: *Euskara Ibarquen-Cachopin kronikan*, Bilbo, Euskaltzaindia, 2008.

MICHELENA, L.: *Textos arcaicos vascos*. Donostia, EHU-UPV, 1990.

VILLACORTA MACHO, M. C.: *Libro de las buenas andanças e fortunas que fizo Lope García de Salazar*. Bilbo, EHU-UPV, 2015.

VILLACORTA MACHO, M. C.: *Edición crítica del "Libro de las buenas andanças e fortunas que fizo Lope García de Salazar [títulos de los libros XIII, XVIII, XX, XXI, XXIV y XXV]*. Bilbo, EHU-UPV, 2005.

Azterlanak:

CARO BAROJA, J.: *Vasconiana*, Madrid, Minotauro, 1957.

- DACOSTA MARTINEZ, A.: *Los linajes Bizkaia en la Baja Edad Media [Poder, parentesco y conflicto]*. Bilbo, EHU-UPV, 2004.
- DIAZ DE DURANA ORTIZ DE URBINA, J. R., y DACOSTA, Ar: “La dimensión social del liderazgo del linaje [solidaridad, poder y violencia (País Vasco, s. XV)]”, *Studia Zamorensia*, XII, 2013, 87-106 orr.
- DIAZ DE DURANA ORTIZ DE URBINA, J. R.: *La lucha de Bandos en el País Vasco [De los Parientes Mayores a la Hidalguía Universal]*. Bilbo, EHU-UPV, 1998.
- DIAZ DE DURANA ORTIZ DE URBINA, J. R.: “Historia y presente sobre el tratamiento historiográfico de la Lucha de Bandos en el País Vasco [balance y perspectivas al inicio de una nueva investigación]” in DIAZ DE DURANA ORTIZ DE URBINA, J. R. (ed.), *La Lucha de Bandos en el País Vasco: de los Parientes Mayores a la Hidalguía Universal: Guipuzcoa, de los bandos a la Provincia (siglos XIV a XVI)*, Bilbo, UPV-EHU, 1998, 21-46 orr.
- DIAZ DE DURANA ORTIZ DE URBINA, J. R.: “Parientes Mayores y señores de la tierra guipuzcoana” en *Los señores de la guerra y de la tierra [nuevos textos para el estudio de los Parientes Mayores guipuzcoanos (1265-1548)]*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 2000, 45-83 orr.
- DIAZ DE DURANA ORTIZ DE URBINA, J. R.: “Violencia, disenso y conflicto en la sociedad vasca durante la Baja Edad Media. La lucha de bandos [Estado de la cuestión de un problema historiográfico]”, *Violencia y conflictividad en la sociedad de la España bajomedieval*. Zaragoza, Universidad de Zaragoza, 1995, 27-58 orr.
- FERNANDEZ DE LARREA, J. A.: “Los señores de la guerra en la Guipuzcoa bajomedieval”, en *Los señores de la guerra y de la tierra: nuevos textos para el estudio de los Parientes Mayores (1265-1548)*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 2000, 21-43 orr.
- FERNANDEZ DE LARREA, J. A.: “Las fuerzas de los parientes mayores en Alava, Guipuzcoa y Vizcaya en la Baja Edad Media, reclutamiento y organización”, *Iura Vasconiae*, 4, 2007, 163-188 orr.
- FERNANDEZ DE LARREA ROJAS, J. A.: “Las guerras privadas: el ejemplo de los bandos oñacino y gamboino en el País Vasco”. *Clio y Crimen*, 6, 2009, 85-109 orr.
- FERNANDEZ DE LARREA, J. A.: “Lucha de Bandos y guerra a sangre y fuego”, *ASJU*, XXIX-2, 1995, 697-699. orr.
- FLORI, J.: *Caballeros y Caballería en la Edad Media*. Barcelona, Ediciones Paidós Iberica, 2001.
- GURRUCHAGA, I.: “Notas sobre los Parientes Mayores. Treguas y composiciones de la casa de Loyola. Documentos”, *RIEV*, 26. zbk., 1935, 483 orr.